

10 GIDA DIDAKTIKOA:

GILGAMESH (Sumeriakoa)

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	9. or.
Bibliografia	15. or.
Egileak	16. or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzekeok, bai ezagutzak eraikitzekeok. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea, hala nola elkarrizketak, bakarrizketak, deiak, oharak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
Hizkuntza idatzia	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz, eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
Literatura hezkuntza	Mota guztietako testu literarioak irakurtzea eta entzutea gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa zein hizkuntza aberasteko baliabide gisa.	Kondaira beste ikaskideentzat irakurtzea eta kontakizuna prestatzea.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei erreparatuz: kondaira. Testuen transformazioak egitea: kondairaren trama eztabaidatuz eta aldatuz. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuenak ikastea: trama. Hizkuntza idatzia balioestea hainbat eremutan: antzinako idatzien balioa.
	Hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazio unitate gisa ulertzea. Aditz laguntzailea. Ordezkatzekeo baliabideak.

EKINTZAK

JARDUERA FUNTZIONALA:

Kondaira baten testutik abiatuz, aldatu trama eta kontatu ahoz beste ikaskideei, irudien laguntzaz.

1. TRAMA ASMATZEN ETA KONDAIRAREN TRAMAREKIN ERKATZEN

Hona hemen Gilgamesh-i eta Enkidu-ri buruzko kondairaren beste bertsio bat:

Behin batean, bazen errege ahaltzu bat. Gilgamesh zuen izena, eta Uruk hiria gobernatzen zuen (Uruk Mesopotamiako lautadan zegoen, Eufrates ibaiaren ondoan).

Gilgamesh erregea eta haren lagun Enkidu aspertuta zeuden egunero gauza berdinak egiten. Mundua ezagutu nahi zuten, eta abenturen bila joan nahi zuten. Gilgameshi urrutiko mendietaraino joatea bururatu zitzaion, han zedro ugari baitzeuden, eta, moztu ondoren, zura Uruk hirira eramatea.

Zedroen zura oso berezia da, arrazoi askorengatik. Zedroak oso altuak dira, eta haien enborra oso zuzena da. Enbor luzeak jauregiak eta tenpluak eraikitzeko erabiltzen ziren. Gainera, zedroen zurak denbora luzean irauten du hondatu gabe, eta, oso ondo usaintzen duenez, oso giro atsegina sortzen du tenpluetan eta etxeetan.

Baina, zedroen basoa Humbabak zaintzen zuen. Humbabaren orroa uholdearena bezalakoa zen, haren ahoak sua zirudien, eta haren hatsa heriotzarena bezalakoa zen.

Hala ere, Gilgamesh eta Enkidu ez ziren beldurtu, eta Humbaba ikusteko irrikan zeuden. Biak oso indartsuak ziren, eta uste zuten Humbaba garaitzeko eta are hiltzeko ere gauza zirela. Horrenbestez, zedroen basorantz abiatu ziren, janaria eta armak bildu ondoren.

Mendietara heldu zirenean, lurralde zoragarriak ikusi zituzten. Zedro lirainez jositako basoak mendi guztiak estaltzen zituen. Gilgamesh eta Enkidu gaua pasatzeko prestatu ziren, eta Shamash jainkoari otoi egin zioten. Hurrengo goizean, basorantz abiatu ziren, baina ez zuten Humbaba ikusi. Zedro luzeenaren azpian utzi zituzten elikagaiak, eta, zuhaitzak mozteko asmoz, aizkorak hartu zituzten. Aizkorak ukitu bezain laster, orro izugarria entzun zen, eta Humbabarena zela pentsatu zuten. Konturatzerako, aurrean ikusi zuten.

Humbabak, oso haserre, alde egiteko esan zien, hil nahi ez bazuten. Baina, biek ala biek, borrokatzea erabaki zuten. Enkiduk eta Gilgameshek munduko haize guztien laguntza eskatu zuten. Iparraldekoa, hegoaldekoa, lurmuturrekoa, haize-zirimolak, basamortuko haize lehorra, urakanak, deabruaren haizea. Denak laguntzera joan ziren, eta, guztien

artean, Humbaba garaitu zuten. Humbaba lurrean etzanda geratu zen. Orduan, Gilgameshek ezpata bihotzean landatu zion, eta hil egin zen.

Bi lagunek zuhaitz piloa ebaki zuten, eta, ondoren, baltsa bat egin zuten, enborrak ibaitik Uruk hiriraino eramateko. Herriko jendea asko poztu zen hainbeste egur ikustean, eta jai handi bat egin zuten bi lagunengatik. Harrezkero, istorio hori ahoz aho kontatzen da.

1.2. ULERTU AURREKO TESTUA: irakurri elkarrekin, eta ulertzen ez duzuenak argitu denon artean.

Zerbait ulertzen ez baduzue, bilatu Interneten edo/eta hiztegian; bestela, galdetu irakasleari.

Hitz ezezagun batzuk ulertzeko, Interneten begira ditzakezue, **Google** bilatzailean, baina “**irudiak**” estekan sakatuta:

Mesopotamia:

Uruk:

Zedro:

Humbaba:

Baltsa:

Zirimola:

Urakana:

2. IPUINA AHOZ KONTATZEKO PRESTATZEN:

Taldeka prestatuko duzue, beste ikasgela batean kontatzeko. Talde bakoitzak gela batean kontatuko du. Gelan bost talde badira, bost ikasgelatan kontatu daitezke.

ORAIN, ZURE TXANDA:

Gilgamesh kondairaren bertsio asko daude. Zuek ere zeuona asmatu dezakezue.

2.1. LEHENDABIZI, PENTSATU zer gerta dakiekeen (lagunekin eztabaidatzeak lagunduko dizue):

Basoko zaindariak intrusoak aldenaraziko ditu bere orro izugarriaz.

Humbabak harrapatuko ditu, eta ostiko batez jaurtiko ditu, **landare lirain horietara** hurbiltzen baziren akabatuko zituela mehatzatuz.

Enkiduk eta Gilgameshek Humbabarekin borroka egingo dute, baita irabazi ere.

Erraldoiak harrapatuko ditu eta jan egingo ditu.

Bi lagunek zedroak moztuko dituzte **deabruak** lo egiten duen bitartean, eta ihes egingo dute **bera** esnatu baino lehen.

Izaki beldurgarria agertzen denean, **gaztetxoak** erruki dadin konbentzitzen ahaleginduko dira, honelakoak esanez: zura beharrezkoa dutela hiriko harresia egiteko, bestela etsaiek erasoko dietela...

Zur bila joan direnak akordio bat lortzen ahaleginduko dira: basoari kalterik ez egiteko, zuhaitz gutxi hartuko dituztela...

Abenturazale hauek tenplu bat eraikiko diotela aginduko diote, eta **zuhaitzen babesleak** onartu egingo du...

Beste ideiaren bat...

2.2. KONDAIRA KONTATZEKO, ASMATU IRUDIAK EDOTA KOPIATU:

Kondaira honen irudiak honako helbide honetan daude; erabil ditzakezue ipuina kontatzeko, baina nondik atera dituzuen esan behar duzue:

http://www.mesopotamia.co.uk/geography/challenge/cha_set.html

Nola kopiatu irudi bat?

1. Kokatu gezia irudiaren gainean.
2. Sakatu saguaren eskuineko botoia.
3. Sakatu **Kopiatu** aukeraren gainean.
4. Testua artxiboan itsasteko, sakatu **Ktrl** eta **v** tekla aldi berean.
(Ez kezkatu oso azkar egiten ez baduzue, ekinez lortuko duzue eta).

Irudiak aukeratu ondoren, kokatu hurrenkera egokian eta kontatu taldean, iradokizunak egin diezazkizueten.

3. KONTAKIZUNEAN HIZKUNTZA ONDO ERABILTZEKO, HAUSNARTU HIZKUNTZAZ:

Konturatu bazarete, Gilgamesh, Enkidu eta Humbaba izendatzeko ez ditugu beti haien izenak erabili. Hona hemen erabili ditugunak; ea zuk zein asmatzen dituzun:

Gilgamesh eta Enkidu	Humbaba	Basoa
Bi lagunak	Basoko zaindaria	Zuhaitza
Gaztetxoak	Erraldoia	Landare lirain horiek
Zur-bilatzaileak	Deabrua	Zura
Intrusoak	Bera	
Abenturazale hauek	Izaki beldurgarria	
	Zuhaitzen babeslea	

3.1. **Hona hemen lehen erabili ditugun esaldiak. Pertsonaien izenak, zuzenean aipatu beharrean, beste modu batez izendatzen dira:**

<p>Basoko zaindariak intrusoak aldenaraziko ditu bere orro izugarriaz.</p>		<p>Humbaba</p>
<p>Deabruak harrapatuko ditu, eta ostiko batez jaurtiko ditu, landare lirain horietara hurbiltzen badira akabatuko dituela mehatxatuz.</p>		<p>Enkidu</p>
<p>Abenturazaleek Humbabarekin borroka egingo dute, baita irabazi ere.</p>		<p>Gilgamesh</p>
<p>Erraldoiak harrapatuko ditu, eta jan egingo ditu.</p>		<p>Enkidu eta Gilgamesh</p>
<p>Bi lagunek zedroak moztuko dituzte, deabruak lo egiten duen bitartean, eta ihes egingo dute, bera esnatu baino lehen.</p>		
<p>Izaki beldurgarria agertzen denean, gaztetxoak erruki dadin konbentzitzen ahaleginduko dira, honelakoak esanez: zura beharrezkoa dutela hiriko harresia egiteko, bestela etsaiek erasoko dietela...</p>		
<p>Zur bila joan direnak akordio bat lortzen ahaleginduko dira: basoari kalterik ez egiteko, zuhaitz gutxi hartuko dituztela...</p>		
<p>Abenturazale hauek tenplu bat eraikiko diotela aginduko diote, eta zuhaitzen babesleak onartu egingo du...</p>		
<p>Basoko zaindaria intrusoak aldenaraziko ditu bere orro izugarriaz.</p>		

3.2. Beste batzuetan, pertsonaiak zein objektuak ez dira aipatzen, ez zuzenean, ez beste izen batez; aditzean agertzen dira.

...tenplu bat eraikiko diotela aginduko **diote**...: Humbabari, Basoari, Zedroari, Gilgameshi...?

HUMBABARI

...eta zuhaitzen babesleak onartu egingo **du**...: **akordioa**, zuhaitzak moztea, Enkiduren eta Gilgameshen proposamena.

Ikusten duzueenez, dena ez da zuzenean aipatu behar, baina aipatzen ez den hori aditz-marka batzuen bidez aipatzen da. Normalean, aditz laguntzailean agertzen da marka hori. **HAIN ZUZEN ERE**, horregatik deitzen zaio aditz laguntzailea, ekintza zehazten laguntzen duelako:

- Egilea nor den esaten edo gogoraten laguntzen digu.
- Zenbat egile dauden.
- Efektua nori egiten dion.
- Ekintza egiteko erabili diren objektuak zein diren eta zenbat diren.
- Ekintza noiz egiten den.

Orain, zuek esan aipatzen ez den hori kasu bakoitzean zer den eta nola dakizuen (inguratu zuen ustez erantzun zuzena dena):

Humbabak harrapatuko ditu , eta ostiko batez jaurtiko ditu , landare lirain horietara hurbiltzen badira akabatuko dituela mehatxatuz.		Humbaba
Erraldoiak harrapatuko ditu , eta jan egingo ditu .		
Ihes egingo dute : Enkiduk eta Gilgameshek, ala Humbabak, ala Enkiduk bakarrik?		Enkidu
...erruki dadin : Humbaba, Enkidu eta Gilgamesh		
...beharrezkoa dutela : Hiritarrek, Enkiduk eta Humbabak		Gilgamesh
...zuhaitz gutxi hartuko dituztela ...: hiritarrek, Enkiduk eta Humbabak, Enkiduk eta Gilgameshek, Zedroek.		Enkidu eta Gilgamesh

3.3. ADITZ LAGUNTZAILEA ALDATU EGITEN DA

Froga dezagun: Lehen ikusi ditugun aditz-formak aztertu, eta aldatu egingo ditugu.

Erraldoiak **harrapatuko ditu**, eta jan **egingo ditu**: Nor? (.....)

Ihes egingo dute: Nork? (.....)

...erruki dadin: Nor? (.....)

Zura **beharrezkoa dutela**: Nork? (.....)

...etsaiek erasoko dietela: Nori? (.....)

...zuhaitz gutxi **hartuko dituztela**: Nork? (.....)

...tenplu bat eraikiko diotela aginduko diote: Nori? (.....)

...eta zuhaitzen babesleak onartu egingo **du**: Zer? (.....)

Nola zegoen	Aditz laguntzailea aldatu behar da, baina nola?
Humbaba erruki dadin	Enkidu eta Gilgamesh erruki dadin
Zura hiritarrek beharrezkoa dute	Zura Humbabak beharrezkoa dute
Etsaiek hiritarrei erasoko diete	Herritarrek Humbabari erasoko diete
Enkiduk eta Gilgameshek zuhaitz gutxi hartuko dituzte	Herritarrek zuhaitz gutxi hartuko dituzte
Tenplu bat eraikiko diotela aginduko diote Humbabari	Tenplu bat eraikiko diotela aginduko diote Enkiduri eta Gilgameshi
Eta zuhaitzen babesleak akordioa onartu egingo du	Eta denek akordioa onartu egingo du

5. KONTATU BESTE IKASGELAN ETA, ONDOREN, AZTERTU KRITIKOKI ZEUEK TALDEAN.

GIDOI LITERARIOA:

IZENBURUA: GILGAMESH

MARI: Kaixo, ikus-entzuleok. Gaurko kondaira Mesopotamian sortu zen, eta, nik dakidala, istoriorik zaharrena da. Izan ere, hauxe da idatzi zen lehen istorioa. Badakizue garai hartan buztin-oholen gainean idazten zutela? (OFF) Bada, oholtxo horiek aurkitu, eta kondaira itzuli egin zuten. Hala ere, zati batzuk falta ziren, eta ez zaigu osorik heldu. Tira, ba. Mesopotamia Eufrates eta Tigris ibaien arteko lur-eremua zen, gaur egun Irak eta Kuwait estatuak dauden eskualdea.

MARI: Mesopotamian sortu ziren Lur planetako lehen hiriak. Eta Uruk zen hiri haietako bat. Bertako erregea Gilgamesh zen, oso errege ospetsua. Kondairaren arabera, Gilgamesh ez zen gizaki arrunta, baizik eta erdi gizaki eta erdi jainkoa. Nik, hemen, laburtuta kontatuko dizuet, baina, aukera baduzue, kondaira irakurtzea gomendatzen dizuet. Tira, hasiko gara, ezta? Ea zer deritzozuen.

GILGAMESH: Erregearen aginduz, nire mendekook zeuon uztaren bi heren utzi beharko dituzue tenpluan jainkoentzat. Abereen kumeen erdiak ere tenplura eraman beharko dituzue, jainkoei opari egiteko. Horrez gain, gizonezkook astean hiru egunez honako lan hauek egin beharko dituzue: hiriko bideak konpondu edota berriak egin; jainkoentzako tenplu berria eraiki...

IDAZKARIA: ...jainkoentzako tenplu berria eraiki...

GILGAMESH: ...eta erregeren jauregia konpondu. Emakumezkoek, berriz, oihalak ehundu beharko dituzte erregearen familiarentzat eta soldaduentzat. Zer, idazkari? Den-dena idatzi duzu?

IDAZKARIA: Bai, jauna.

GILGAMESH: Irakurri, bada, ea dena idatzi duzun.

IDAZKARIA: Erregearen aginduz, nire mendekook uztaren bi heren utzi beharko dituzue tenpluan jainkoentzat. Abereen kumeen erdiak ere tenplura eraman beharko dituzue, jainkoei opari egiteko.

AGUREA: Ai, ene!

ATSOA: Errukarriak gu!

IDAZKARIA: Horrez gain, gizonezkook, astean hiru egunez, honako lan hauek egin beharko dituzue: hiriko bideak konpondu edota berriak egin; jainkoentzako tenplu berria eraiki, eta erregeren jauregia konpondu. Emakumezkoek, berriz, oihalak ehundu beharko dituzte erregearen familiarentzat eta soldaduentzat.

GIZON: Ez dago eskubiderik.

EMAKUME: Goseak hilko gara! Burutik jota dago! Nola emango dizkiogu uztaren bi heren? Eta guk zer jango dugu?

IDAZKARIA: Erregeren aginduak bete egin behar dira, jainkoen semea baita! Bestela, betiko hondamendia etorriko zaizue!

GIZON: Hondamendia? Hau baino okerragorik ezin da izan, goseak hilko gara eta!

EMAKUME: "Goseak"? "Lanak" esango nuke nik! Egun guztia lanean eman beharko dugu. Eta norentzat, e? Norentzat?

IDAZKARIA: Alde hemendik, zoazte lanera alfer halako horiek! Alde! Lanera! Tira!

IDAZKARIA: (BARRETXOA)

GIZON: Haurrok, gure erregea oso ankerra da. Gero eta gehiago eskatzen digu! Ez dakit zer egingo dugun!

HAURRA: Aita... eta zer gertatuko zaizu, kasurik egiten ez badiozu?

GIZON: Ezinezkoa da. Errege jainkoen semea da, eta botere handia du.

EMAKUME: Uztaren bi heren eskatzeaz gain, abereen kumeen erdiak emateko eta astean hiru egunez beretzat lan egin dezagun agindu du!

HAURRA: Lasai, amatxo.

EMAKUME: Nekatuta gaude, hau ez da bizimodua!

GIZON: Laguntza behar dugu!

EMAKUME: Eta nori eskatuko diogu?

GIZON: Gilgamesh jainkosa baten semea da. Bere amarengana joko dugu eta zeinen ankerra den esango diogu. Seguru ez duela gogoko!

EMAKUME: Aruru jainkosa, zure seme Gilgamesh oso ankerra da. Eskatzen diguna gehiegizkoa da. Berak eskatutako guztia emango bagenio, ezingo ginateke bizi!

GIZON: Aruru jainkosa, erruki zaitez gurekin. Gure bizimodua oso latza da. Bestela ere, nekez lortzen dugu urte osorako janaria biltzea.

EMAKUME: Zerga guztiak ordaindu ditugu, eta zuri ere opariak ekarri dizkizugu. Ezin dugu gehiago eman!

ARURU: Tira, entzun dut zuen erregua. Orain, utz iezadazue pentsatzen. Zoazte.

GIZON: Bai, bagoaz. Eskerrik asko, Aruru.

EMAKUME: Mila esker, jainkosa, mila esker.

ARURU: Unibertsoaren indarrak, emaiozue bizia izaki honi, emaiozue unibertsoaren indarra. Emaiocue Gilgamesh errege ankerraren kontra borrokatzeko adorea eta ausardia! Enkidu, nire esana egin behar duzu. Pena handia dut, baina behartuta nago. Nire seme Gilgamesh hil egin behar duzu, oso ankerra baita. Zoaz azkar!

ENKIDU: Hala egingo dut.

GILGAMESH: (MARMARREAN) Eta ehuntzen dituzten oihalekin jantziak egingo dituzte...

SOLDADUA: Jauna, jauna! Oso berri latzak ditut! Ai, ene! Hau madarikazioa!

GILGAMESH: Baina, zer duzu? Zergatik zabilta horren urduri?

SOLDADUA: Jakin dudalako Aruru jainkosak, zure amak, izaki indartsu bat sortu duela zure kontra borrokatzeko.

GILGAMESH: E? Nork esan dizu hori?

SOLDADUA: Gizon bati entzun diot hirian. Izakiak Enkidu izena du. Eta oso indartsua omen da.

GILGAMESH: Ezin liteke! zergatik egingo zuen halakorik nire amak?

SOLDADUA: Dirudienez, hiritarrek zure amarengana jo dute kexatzera.

GILGAMESH: A, bai? Bada, ez kezkatu. Enkidu horrek gerra nahi baldin badu, aurkituko du. Horrek oraindik ez daki nor naizen ni.

SOLDADUA: ...hiru eta lau. Bat, bi, hiru eta lau. Bat, bi, hiru eta lau.

ENKIDU: Hemen nauzu. Enkidu naiz.

ENKIDU: (BARREAK) Gilgamesh, koldar hori, amaitu dira zure gehiegikeriak. Enkidu nauzu, eta, Aruru jainkosaren aginduz, hil egin behar zaitut! (BARREAK)

GIZON: Ai, ene! Borrokan dabilta!

EMAKUME: Begira, hor dator semea!

HAURRA: Hemen nago. Borroka amaitu egin da.

EMAKUME: Ene, amaitu egin dute? Nork irabazi du?

HAURRA: Berdinduta geratu dira. Gilgamesh eta Enkidu lurrean daude.

EMAKUME: Ene, bada!

GIZON: Eta, orain, zer?

GILGAMESH: Oso indartsua eta adoretua zara. Nire kontra borrokatzen ausartu zara, eta orain arte ez da inor ausartu. Nire laguna izan nahi duzu?

HAURRA: Ai, ama!

GIZON: Ene jainkoa!

EMAKUME: Zer gertatuko ote da?

HAURRA: Ez! Hau zoritxarra! Lagunak ez dira, bada, egin?

ENKIDU: Badakizu, bion artean edonor garaituko genuke.

GIZON: Zalditik astora gabilta!

EMAKUME: Eta astotik lurrera! Hobe dugu ihes egitea.

GILGAMESH: Tira... Joango gara Humbaba erraldoia menderatzera?

ENKIDU: Nigatik, primeran. Zer egin dizu?

GILGAMESH: Basoak erretzen ditu, sua ahotik jaurtiz. Nazkatuta nauka.

ENKIDU: Tira, ba, goazen.

GILGAMESH: Bai, joan gaitezen.

MARI: (OFF) Eta, lagun eginda, ausart eta kementsu abiatu ziren biak Humbaba erraldoiaren bila.

MARI: Suposatzen dut konturatu zaretela Humbaba erraldoia sumendi bat zela. Sumendiarekin borrokatzea ez da, gero, lan erraza. Hala ere, menderatu egin zuten. Nola? Bada, haizeak eta euriak lagundu zieten. A zer azkarrak, ezta? Gilgamesh eta Enkiduren ausardiaren berria leku guztietara zabaldu zen, eta Istar jainkosaren belarrietara ere heldu zen.

ISTHAR: Entzun dut Gilgameshek Humbaba erraldoia mendean hartu duela!

ARURU: Bai, hala da.

ISTHAR: Bai gizon ausarta, eta ederra!

ARURU: Hori gauza jakina zen.

ISTHAR: Hain da indartsua... eta adoretua... eta ausarta!

ARURU: Ez dakit zer ari zaren pentsatzen, baina susmo txarra hartzen diot.

ISTHAR: Ezagutu egin nahi nuke!

ARURU: Ez, utz ezazu bakean. Oso gaiztoa zara, eta utzi bakean! Adu?

ISTHAR: Zer? Nik nahi dudana egin dezaket!

ARURU: Nire semea da. Erruki zaitez! Zurekin maitemindu diren guztiak oso gaizki tratatu dituzu. Utzi nire semea bakean!

ISTHAR: Ez kezkatu, ez diot minik egingo. Liluratuta nauka, hain da polita!

ISTHAR: Kaixo, Gilgamesh! Zorionak ematera etorri naiz, jakin dut-eta oso ausarta izan zarela.

GILGAMESH: Eskerrik asko!

ISTHAR: Ez horregatik. Egia esanda, sari bat merezi duzu.

GILGAMESH: Ez da hainbesterako. Oso dibertigarria izan zen. Ikusi izan bazenu... Ezustean harrapatu genuen Humbaba, eta eraso egin genion. Gainera, Haize jainkoak eta Euri jainkoak lagundu ziguten.

ISTHAR: Oso apala zara, polita, bihotz onekoa, indartsua...

GILGAMESH: Ssss! Eskerrik asko, eskerrik asko. Tira, asko eskertzen dizut, baina utz dezagun horrela, e?

ISTHAR: Gilgamesh, maite zaitut. Zurekin hemen geratu nahi dut.

GILGAMESH: Et, et, et, et, et! Nirekin ez! Ezagutzen zaitut, eta ez zara ona. Alde hemendik, alde!

ISTHAR: Nola ausartzen zara? Nola egiten didazu hau niri? Damutuko zaizu, larrutik ordainduko didazu irain hau!

GILGAMESH: Zer egingo didazu, e? Niri ezin didazu ezer egin. Zoaz pikutara, zoaz!

ISTHAR: Halakorik! Bere etxetik bota nau inolako begirunerik gabe! Lotsagabe handi bat da!

ARURU: Esan nizun, bada, bakean uzteko. Burugorria halakoa!

ISTHAR: Hala ere, ez zuen eskubiderik ni horrela tratatzeko. Zigorra merezi du!

ARURU: Ez! Utzi bakean, mesedez. Erruki zaitez, nire semea da!

ISTHAR: Ez diot minik egingo, ez berari zuzenean.

ARURU: Eskerrik asko!

ISTHAR: Berari ez. Baina bere laguna, Enkidu, hil egingo da!

ARURU: Ez, hori ere ez! Ez!

GILGAMESH: O, nire errua izan da. Ez da bidezkoa! Jainko anker horiek, emaiozue bizia! Aditu duzue? Bizia itzuli behar diozue Enkiduri!

ARURU: (OFF) Erruki zaitez, (ON) begira nola dagoen! Esan nizun minik ez egiteko!

ISTHAR: Eta ez diot minik egin! Berari ez!

ARURU: Nazkagarria halakoa! Bada, zuk lagundu nahi ez badiozu, neuk (OFF) egingo dut!

ARURU: (OFF) Gilgamesh, zure laguna berpiztu nahi baduzu, itsas ondoan hazten den belar baten bila joan beharko duzu.

GILGAMESH: Joango naiz, eta berriro biziko zara, ene laguna!

MARI: (OFF) Gilgamesh itsasoan murgildu zen, eta belarra aurkitu zuen. Baina irten zenean, suge batek lapurtu zion. "Zoritxarrez" lapurtu ziola esan beharko dut, zeren eta, bestela, orain hilezkorrak izango baikinake. Edo, behintzat, horixe da kondairak dioena. (ON) Tira, gutxi gorabehera, nik kontatu dudan bezalakoa da. Hala ere, jatorrizkoa irakurri nahi izanez gero, jo ezazue liburuetara, nik zertxobait aldatu dut eta. Ikusleok, ondo izan, eta hurrengora arte!

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea.

Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiaz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiaz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kueto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

Nahasketak:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:
Ana Urresti

Koordinatzailea:
Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1492/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA